



LARRUAZALPEKO BIDEA MANEIJATZEA ETXEKO ESPARRUAN

Zaintzaileentzako gomendioak

- Osasun-taldeak larruazalpeko bide bat utziko dio zure senitartekoari. Larruazalaren azpitik eta oso fina den kateter txiki bat da, eta, horren bidez, behar izan ditzakeen botikak emango zaizkio.
- Behin jarrita, ez du eragozpenik sortzen.
- Osasun-taldeak etxean utziko ditu kargatutako eta identifikatutako xiringak, eta botikaren izena eta dosia zehaztuta izango dute.
- Medikazioa leku garbi eta lehor batean gorde behar da, argitik babestuta eta tenperatura egonkorra den toki batean. Haurren eta maskoten irismenetik kanpo.
- Medikazioa emango duen lehen aldian, osasun-taldea arduratuko da azalpeko bidea nola erabiltzen den azaltzeaz, eta lehen aldiz eman ahal izango dio, bere gainbegiradapean.

Nola eman botikak?

- Etxean tratamendu-orri bat izango duzu, eta bertan zehazten dira agindutako medikazioa, zer sintomatarako den egokia eta zer ordutarako eman daitekeen.
- Honako urrats hauei jarraitzea gomendatzen da:
 1. Eskuak ura eta xaboia erabiliz garbitu
 2. Taldeak azalduko zizun bezala, kateterrak **tapoi** bat du muturrean. Fluxuaren aurkakoa edo buxatzailea izan daiteke (osasun-profesionalek azalduko dizute zer tapoi duen zure senitartekoak):
 - Tapoia **buxatzailea** bada: kateterretik askatu. (Ez ahaztu prozesuaren amaieran berriro jartzea).



- **Errefluxuaren aurkako** tapoia bada: toallatxo batez tapoia desinfektatu, esku batez tapoi urdinari eutsi, eta bestearekin xiringa sartu, lotuta geratu arte (batzuetan xiringari vuelta laurdena eman behar zaio).





3. Botikak eman:

➤ **Xiringa bidez** ematen bada:

- Medikazio-xiringetako bat hartu eta tapoia kendu.
- Sakatu xiringaren enboloa leunki dosia osatu arte.

Medikazioa odol-fluxuan zuzenean sartzen ez denez, aire-burbuilaren bat egotea ez da arriskutsua, eta ez da beharrezkoa kentzea.

- Baztertu xiringa eta idatzi medikazioa eta emateko ordua.

➤ **Infusore bidez** ematen bada:

- Infusorearen konexio-sistema kendu, osasun-taldeak azalduko zizun bezala.
- Kendu tapoia muturretik.
- Pazientearen larruazalpeko bidera kiribildu.

Nola zaindu larruazalpeko bidea?

- Egunero aztertu ziztada-lekua, botikarik emango ez baduzu ere.
- Apositu gardena behar bezala itsatsita dagoela egiaztatu.
- Familiakoak infusorerik badu, egiaztatu globoa husten ari dela.
- Ziurtatu ez dela likidorik ateratzen bidetik kanpo.
- Medikazioa ematen den bitartean, normala da min edo erresumin pixka bat nabaritzea. Traba hori arindu egin daiteke inguruan masajea emanez, errazago xurgatu ahal izateko.
- Gorritasuna, odol-jarioa edo min handia ikusiz gero, osasun-taldeari jakinarazi.